

FUNTSEZKO ELKARTEAK



IGure kabuz ezin dugu auto bat eraiki, eta honengatik hainbat enpresekin elkartzea erabaki dugu gure ideia aurrera ateratzen laguntzeko, gure enpresa ideia optimizatuz, arriskuak murriztuz eta baliabideak eskuratuz.

Horretarako Michelinekin elkartuko gara adibidez gurpilak lortzeko, eta SunPower enpresarekin eguzki plakak lortzeko, bi enpresak berritzaileak baitira, eta kalitatezko produktua egiten dute. Gainera gure baloreak SunPowerrenekin bat datozte. Horrela beste hainbat enpresekin elkartuko gara autoaren zati eta materialak errazago eskuratzeko. Horien artean Starchem margoa lortzeko eta Stealey beste material batzuentzat.



Nvidia enpresarekin kolaboratzea ere gustatuko litzaiguke gure autoaren hainbat sistema sortu eta hobetzeko. Azken finean, sentso eta teknologia berri guztiekin, gure autoak software asko ere beharko du, eta Nvidia oso enpresa berritzailea eta ezaguna da, adimen artifizialaren industrian aurrerapen asko egiten ari dena. Honekin arriskuak murriztu eta baliabideak eskuratuko ditugu.



Beste aldetik, hainbat unibertsitatekin elkartzea erabaki dugu ingeniariak errekrutatzeko asmoz gure auto ideia optimizatuz. Ideia ona iruditzen zaigu, unibertsitateetan jende gaztea aurkituko dugulako, berritzailea eta ideiaz betetakoa. Hasiera batean ezingo ditugu unitate asko egin, ez dugulako plantila oso handirik edukiko.

Bezeroak lortze aldera Iberdrolarekin elkartzea erabaki dugu. Gure autoa elektrikoa da, eta Iberdrola da Espainiako elektrizitate hornitzaile handiena, gehienek kontratatzen dutena. Horregatik, gure autoa duten bezeroei prezioa jaistea adostu nahi dugu eurekin, bi enpresek bezero gehiago erakartzeko asmoz.

Beste enpresa bat Neste da. Neste Finlandiako enpresa bat da, eta autoentzat erregaia egiten du besteak beste. Horregatik gasolindegia batzuk ere baditu. Enpresa hau hautatu dugu gure baloreak partekatzen dituelako, ingurumena zaintzea hain zuzen, jasangarriagoa izaten. Horregatik Nesterekin elkartzea erabaki dugu Espainian gasolindegia ireki ditzaten, gure autoa duten bezeroei kargatzea beste gasolindegietan baino merkeago ateratzea proposatuz. Izan ere, gure autoak ez du erregairik erabiltzen, baina karga puntu gehiago izatea interesgarria izango litzake gure bezeroentzat. Horrela Nestek ere errazago izango du bezeroak erakartzea, Chiteki duten pertsonak Neste gasolindegia aukeratuko baitituzte.

Enpresa hauekin guztiekin elkartuz gure enpresa ideia optimizatu, arriskuak murriztu eta baliabideak eskuratuko ditugu, aldi berean beste enpresei ere onurak ekarriz.